

Irribarre egin, murtxikatu eta isildu



HIRUKI LARROXA

Askok, Gabonetan, ilusioa baino alferkeria handiagoa sentitzen dugu familia-otordu eta -topaketetan pentsatzean. Baina aurreratzen dizuegu ez dela otordua bera kolektiboki deseroso sentiarazten gaituena, familia tradizionala definitzen duen normatibitatea baizik. Are gehiago, ausartuko ginatke esatera ondorengoa dela deseroso sentiarazten gaituen formula komuna: *Gabonak familian = esleitutako rola betetzea + iruzkin deserosoak onartzea + urte osoan metatzen joan diren gatazkak ezkutatzea + hipokrisia pixka bat.*

Izan ere, *familia* hitza latinezko *famulus* hitzetik dator, *morroi* esan nahi duena. Eta noski, etimologia ekartzen badizuegu, data hauetan (eta urtean zehar) familian errepikatzen diren dinamikak aztertzeke lagungarria delako da.

Familia, berez, egituratua dago arau (heteropatriarkal) kolektiboa norberaren beharren gainetik ezartzen duen eta egoera askoren esklabo sentiarazten gaituen instituzio gisa. Hortik, gure lehengusu arrazista eta homofoboarekin afaltzera behartuta sentitzea; urtero gure balioak, nortasuna eta existentzia bera baliogabetzen dituen arren. Hortik ere, ama eta amona askok beren burua zaintzaile eta sukaldari roletan preso sentitzea; atsedean hartzeko edo gozatzeko duten eskubidea (beste askoren artean) urratzen diren arren.

Areago, Gabonek familiaren *performance* gisa funtzionatzen dute, eta familia-topaketetan, ezkutuko (eta ez hain ezkutuko) gatazkak mahai gainean jartzeko edozein ahalegin mehatxutzat hartzen da. Baina, zergatik ezin diogu aurre egin iruzkin klasistak egiten dituen izebari edo "kanpokoei" buruz hitz egiten duen aitonari? Agindua argia delako: irribarre egin, murtxikatu eta isildu.

Bai, dinamika horiek oso nekagarriak dira; batzuetan oso bortitzak ere bai. Pertsona disidente asko beren burua kamuflatzera, beren errealitateak alde batera uztera eta beren izanaren kontrako iruzkinak jasatera behartuta sentitzen direlako. Eta justuki, hemen sartzen da jokoan aukeratutako familiaren gaia. Horretan, ohiko familia-arauetatik kanpo sentitzen garen pertsona askok lagunartean eta bestelako lotura afektiboetan aurkitzen dugulako babeslekua. Aukeratutako familiak gogorarazten baitigu ez gaudela behartuta kalte egiten diguten loturak jasatera.

Horregatik, premiazkoa da "familia" instituzio gisa birpentsatzea. Edo, zergatik ez, familia bera ezagutzen dugun bezala abolitzeko bide-orri bat diseinatzen hastea. Bitartean, gutako askok ihesbide propioak diseinatu ditugu, Urtezahar gauean gure hautatutako familien akelarreetara ihes eginez. ●

Pereza

EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA
IDAZLEA

Ez dakit zuek ere pertzepzio bera ote duzuen –aitor dut: modu zientifikoa hasi naiz idazten hemen–. *Pereza* hitzaren *hedatze naturala* zari naiz. Gero eta gehiago aditzen baitut Hego Euskal Herriko bazterretan: euskaraz, espainolez eta, jakina, euskañolez. Zilegi bekit galdetzea, ez baitakit nola den bertze inguru batzuetan: perezaren harroaldia antzeman dute Ipar Euskal Herrian ere? Kultura globalizatuan? Sare sozialetan?

Jarrai dezadan –modu zientifikoan– zahartzen ari zaizkidan begi-belarriekin. Izan ere, gero eta ozenago adierazten den

pereza –ez nagi, ez nagikeria–, gazteagoen artean sumatu izan dut gehien. Nolanahi ere den, adin batetik goiti korritzen ere badaki boladako terminoak: pereza, kurioski, ez bide da nagia akolito berriak lortzeko ahaleginetan. Agian, ARGIAko irakurle maite hori, zu ere hasia zara pereza garaikidean pausoak ematen...

Baina, nondik etorri da hitza noiznahi erabiltzeko joera? Zer dela eta du aldealdeko haizea gurean?

2025ean sartzeak pereza ematen duela aditu berri diot bati. Etxepe berean bizi den auzokideari. 16 urte dituen gure semearekin solasean ari zela. ●